

Intxaurrondo

Ijitoekin bat Intxaurrondo ikastolan

Azaroa hil berezia izan da Intxaurrondo ikastolako haur, irakasle eta gurasoentzat, izan ere, kulturen arteko harremanak sakontzeko proiektuari esker, ijitoen kulturara gerturatzeko aukera izan dute. Hilaren 30ean jaia antolatu dute egitaraua amaitzeko.

kasturte honetan bertan herrien arteko harremanak estutzeko bestelako ekime-nak antolatuko dira Intxaurrondo ikastolan, oraindik da-ta eta egitarau finkorik ez da-goan arren. "Urteak dira bes-te kulturekiko harremanak lantzeko proiektuarekin hasi

ginela. Hil honetakoa ez da lehen ekimena. Martxoan saharaiarren kultura ezagu-tzeko aukera izan ge-nuen. Horrez gain, duela zazpi urte-tik Salvadorreko komunitate bateko eskolekin senidetze egitasmoa dugu abian", jakinarazi digu Maite Berzosa

"Errespetatzen ikasi dugu" Maite Berzosa

proiektua kordinatzeaz ardu-ratu den irakasleak.


Oraingoan, ijitoen bizimodu-ua izan dute hizpide eta ikas-gai. Horretarako, hainbat el-karteren laguntza jaso dute, Kale dor Kayiko erakundeare-na kasu. "Gure helburua ijito-en historia eta kultura ezagu-tu, giza talde horren ohiturak ulertzen saiatu eta horiek errespetatzeko lan egitea da", diosku Maitek. Asmo horrekin, hainbat ekitaldi antolatu di-tuzte azaroan: dantza eta txalo tailerra, argazki erakusketa, ipuin saioa, paseoak gurdiz, bideo emanaldia eta abar.

Piñonateren kontzertua

Esan bezala, hilaren 30ean jaia antolatu dute ikastolan. Arratsaldean, 16.00etatik aurre-ra azoka egingo dute ikastola-ko jolaslekuan eta ijitoek lau-pabost saltoki ipiniko dituzte




bertan. 19.30etan, berriz, Pi-ñonate flamenko taldeak kontzertua eskainiko du areto na-gusian. Horrez gain, taberna zabalduko da. Jaiarekin amai-tuko da egitaraua. "Ez da ba-tere erraza egindako lana hitz gutxitan baloratzea, izan ere, epe luzerako helburuak finka-tu ohi ditugu. Gure asmoa pixkanaka eguneroko lanetan baloreak lantzen joatea da. Orain arte, pixkanaka-pixka-naka ezberdintasunak aberas-ten gaituela ikusi dugu. Ho-rrez gain, elkar errespetatzen ikasi dugu eta beste errealita-teak ezagutzeko jakinmina piztu zaigu", esan digu Maite Berzosak. Ez da gutxi.



Euroarekin bueltaka

Hilaren 11 eta 13an, "Euroa gertu dago. Prestatuta al zaude?" izenburuko hitzaldiak egingo dira. Lehenengoa euskaraz-koa izango da eta Larrotxenen antolatu da. Bigarrena, berriz, gaztelazkoa izan-go da eta Intxaurrondo Berri kultur etxe-an egingo da. Hitzaldiok 19.30etan hasi-ko dira.



Josu Tellabide hizlari

Hilaren 14an "Altza, Egia eta Uliako zenbait etxe" izeneko hitzaldia egingo da Larrotxene kultur etxean 19.30etan. Josu Tellabide etnologoa ariko da bertan. Donostia Kulturak eta Plazara Goaz taldeak antola-tu dute hitzaldia.